

Kotarro

16
zbk.

2011ko maiatza

debaldeko alea


Garean-Jarduerak

Lizarran Kantuz

Maiatzak 28
Ekainak 25
Abuztua 6 (Lizarrako festak)
Arratsaldeko 20:00etan
Baxenabarra kaletik

Garean Irratian

Larunbatero 13:05tik aurrera
Lizarrako Punto Radio
Irratian (FM 93.4ean)



Errota

Ekainak 2
Diaporama
"Hamarkada bat harkaitzetan"
Irati Andaren eskutik.
20:00etan Musika Eskolan



Udaberriko mazedonia

Urtea hamabi hilabeteko zikloa da, gurpil baten antzera behin eta berriro errepikatzen dena. Eskuartean duzuen Kotarro honek ere ziklo bukaera eta hasiera moduko mugarrria dirudi. Izan ere, udaberrian dena berriro hasten baita.

Udaberriko mazedonia gisa dakarkizuegu kotaroren zenbaki hau. Mazedonian fruitu ugari nahasten dira, muxikak, udareak, sagarrak, platanoak... eta Kotarron bertze osagai batzuk. Biak dira gozoak gustuko badituzu.

Udaberria, eguzkia, beroa, hosto berdeak, loreak, alergiak... denak batera iritsi dira urtero bezala. Bizitzaren zikloa da. Neguan hil dena biziberritzen da, natura piztu eta zelaiak berdetu. Urtero dena errepikatzen da. Urtero bezala Puyko ama birjinaren jaia ere badator, eta Kotarron duzue urtero bezala prestatu den egitaraua. Urtero bezala dator IGO kanpaina Irakurri, Gozatu eta Oparitu.

Aurtengo maiatzean baita udal hauteskundeak ere. Lau urtean behin izaten diren arren ia urteroko maiztasuna dutela dirudi, hainbertze baitaude, Iruñarako, Europarako,

Madrilerako... la erran genezake etengabeko hauteskunde kanpainen bizi garela. Kotarron sagarrak eta tomateak batzeko metodoa erakutsiko dizuegu, matematikari ekin baitiogu oraingo honetan.

Gareanen ere ziklo bat bete dugulako sentsazioa dago. Hasi ginenetik egin den bideari begira egon gara. Bidean etenaldi txikia egin, bide bazterrean eseri gara eta atzera begira jarri gara, gure oin marken arrastoari begira, egin dugun bidea aztertu nahian, nondik gatozen ikusiz nora joan hobeki asmatuko ote dugun.

Topaguneak ere martxan jarri zuen hausnarketa baliaturik honetantxe ibili gara azken boladan.

Beraz, hona zuretzat prestatu dugun udaberriko mazedonia. Dasta ezazu, gozozgoza atera baitzaigu!

*Gareanen ere
ziklo bat
bete dugu...*

Sagarren eta tomateen batuketak

Hauteskundeetan hautetsiak izendatzeko erabiltzen den metodo matematikoak, D'Hondt metodoak, zerrenda bozkatuenak saritzen ditu, ez baita erabat proportzionala. Aurtengo maiatzaren 22an burutuko diren Udal Hauteskundeetan aurkezten den talde kopuru handia denez kontu horrek eragin handia izan dezake.

■ Pello Etxaniz

Inoiz baino talde gehiago aurkezten ote dira? Horixe da entzun den galdera. Nork du erantzuna? Ezker/eskuin, abertzale/nafarzale/espainiarzale adjektiboek lehen zuten erranahia aldatuxe dagoen arren, oraindik ere badirudi indarrean jarraitzen dutela Lizarran, aurkezten diren zerrendak kontuan hartzen badira.

Hasieran botatako galderaren erantzuna adinez jakiteko motiboa dutenek erranen dute. Agian ez dira talde gehiago baina azkenekoetan baino zaituago dago eskaintza zalantza izpirik gabe, bai ezker aldetik, bai eskuinetik, bai erditik, edonondik begiratuta ere...

UPNk, azken udal hauteskundeetan zerrenda bozkatuenak, oraingoetan baditu bertze bi zerrenda kompetentzia eginen diotenak, PP eta DNE.

Talde abertzaleek ere zatiketa handiagoa erakusten dute, batez ere NABAI eta ANV zirelako lehen eta orain NABAI, BILDU eta LKB.

Zatiketak eta batuketak eragiketa matematikoak dira, eta indarrean dagoen hauteskunde legeak metodo matematiko bat erabiltzen du zinegotzien banaketan, D'Hondt metodoa, hain zuzen ere. Izan ere, Victor D'Hondt belgiarrari bururatu zitzaion metodoa erabiltzen da hauteskundeetan. Hemen azalduko da nola funtzionatzen duen.

Azalpenerako hona hemen azken udal hauteskundeen emaitza:

UPN	8	3061	40.99 %
NA-BAI	3	1368	18.32 %
PSN-PSOE	3	1293	17.31 %
EAE-ANV	1	762	10.20 %
CDN	1	445	5.96 %
IUN-NEB	1	437	5.85 %

Alderdi bakoitzaren bozken zatiketak egiten dira, zati I (/1), zati bi (/2)... Eta zatidurei, handienetik txikienera banatzen zaizkie 17 zinegotziak. Hemen duzue 2007ko emaitzei aplikaturik:

	/1	/2	/3	/4	/5	/6	/7	/8
UPN	3061 (1)	1530 (2)	1020 (5)	765 (6)	612 (10)	510 (11)	437 (14)	382 (17)
NABAI	1368 (3)	684 (8)	456 (12)	342				
PSN	1293 (4)	646 (9)	431 (16)	323				
ANV	762 (7)	381	254					
CDN	445 (13)	222						
EB	437 (15)	218						

Metodo honek batuketa "saritzen" du, hona hemen adibidea:

NABAIk eta ANVk atera zituzten bozken baturak ($1368 + 762 = 2130$) 5 zinegotzi eskuratuko zituen, bien artean atera zituzten 4ak baino 1 gehiago botu kopuru berdinez, eta UPNk 1 gutxiago. Baina, noski, txikitzen erraten ziguten gisa, ezin daitezke sagarrak batu tomateekin, ezta?

Kontuan hartzen badugu metodo hau ez dela erabat proportzionala eta batuketak zerrenda bozkatuenak "saritzen" dituela, aurtengo fragmentazioarekin, nola geratuko da kontua?

Gozatu eta gozarazi, gozamina, urrats gutxitan

Hirugarren urtez, Garean euskaldunon elkarteak "Irakurri, gozatu eta oparitu" kanpaina abian jarri du. Aurreko urteetan bezala, apirilaren 23tik uztailaren 23ra bitarte, hiru hilabetez iraunen du.

"Irakurri, gozatu eta oparitu" kanpainaren helbururik garrantzitsuenak hauxe da: euskaraz irakurriz gozatea eta liburuak oparituz gozatea. Jakina, bidenabar bestelako helburuak ere betetzen dira, hala nola euskarazko liburuen irakurketa sustatzea, euskal kulturako produktuen salmenta areagotzea edota herriko liburu denda eta liburutegiarekin batera euskararen alde lanean jardutea.

Oso erraza da ekimen honetan parte hartzea eta eskaintzen dituen abaintailak baliatzea:

1. Udal liburutegitik euskarazko liburu bat hartu, etxera eraman eta irakurriz gozatu.
2. Irakurritakoan, liburuari buruzko galdera errazak dituen fitxatxo bat bete eta beheapen txartela eskuratu (%25a). Garean kide bazara, beheapena %50ekoa da.
3. Herriko liburu dendetan (Ino, Irrintzi, Clarín eta Compás) euskarazko edozein liburu erosi eta lagun bati edo zeure buruari oparitu.

Azpimarratu behar da mota guztietako liburuak erosi daitezkeela eta baldintza bakarra euskaraz idatzita egotea dela. Aukera pargabea eskeintzen digu eta horrela baloratu dute aurreko urteetan erabili duten irakurle andanak.


Hau gutxi balitz, aurten badago nobedade bat. IGOren irakurle fitxa betetzen dutenen artean hilabetero 50 €ko erosketa-txekaren zozketa izanen da, liburu dendetan liburuak erosi ahal izateko.

Gareanek antolatzen duen proposamen honek Estella-Lizarrako Euskara Zerbitzu eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren babesa du eta aipatutako herriko liburu denden laguntza.



"Hamarkada bat harkaitz artean" diaporama

Irati Anda eskalatzaileak diaporama eskainiko du ekainaren 2an, ostegunean, arratsaldeko 8etan, Julian Romano Musika Eskolan, Garean elkarteak antolaturik eta Lizarrako Udaleko Euskara Zerbitzuaren babesaz. Iratik gaztetatik eskalatzen eman duen ibilbidea, kirol horrek izan duen bilakaera eta bere kirol karrerako unerik garrantzitsuenak kontatuko ditu.



Irati Anda

"Hamarkada bat harkaitzen artean"

Irati Andaren hitzek diaporama interesgarri hau ikustera animatuko gaituzte: "Gazte gaztetik hasi nintzen eskalatzen eta hastapenetatik gaur egunera arte eskaladak aldaketa prozesu nabaria jasan du (entrenamenduak, zailtasun igoera...). Nik ere eskalada bizi eta praktikatzeko modua aldatu egin dut eta aldaketa honen eta honek sortarazitako sentipenen ingurukoa da diaporama. Bestetik, nire kirol karrerako unerik garrantzitsuenak ere azaltzen dira nik neuk idatzi eta narraturiko idatzien laguntzaz."

Harira



Hausnarketarako unea

Garean hausnarketa prozesu batean murgildu da; orain arteko ibilbidea eta hemendik aitzinako norabidea aztertzen ari da. Hemen, elkarteko bi kideri eskatu dizkiegun bi idatzi hauen bidez plazaratzen ditugu eskuartean darabilzkiegun asmoak.

XXI. mendeko Garean elkarte

■ Begoña Martínez

Garean sortzeko pausuak eman genituenean, eredu gisa Bilabako Karrikaluze elkarte hartu genuen. Ez ginen, beraz, deusetik abiatu ezta originalegiak izan, azken finean han hemenka gurea bezalako hainbat elkarte badirelako. Topagunearen laguntza ere garrantzitsua izan zen, formakuntza eman baitzigun eta zerbitzu anitza. Halere, elkarte bakoitzak bere nortasun eta lan ildo propioak ditu: bere bidea egiten du taldekideen prestakuntza eta gogotik abiatu eta tokian tokiko ezaugarrietara egokituz. Horrela, urratsez-urrats baina etengabe, Gareanek hainbat jarduera abiatu ditu lau urte hauetan, batzuk berriak, guk sortuak, eta bertze batzuk "ekarriak".

2010ean Topagunearen kongresuaren ondoren, Gareanek hausnarketa propioa hasi zuen. Oraindik "gazteak" izan arren (elkarte gisa, jakina), ibilbide bat egina genuen eta gure burua kokatu nahi genuen. Eragile batzuk gonbidatu genituen (AEK, Gure hizkuntza, etab.) gure lanaren balorazioa egiteko eta Gareanen irudiarren isla emateko. Ispilua behar genuen, kanpotik nola ikusten gintuzten jakin. Rosa Ramos Berriotzarko euskara teknikariak gidatu zuen saioa.

Kongresuaren ondoren, 2011an zehar Topaguneari hausnarketa bat egin du XXI. mendean euskara elkarteek izan behar dituzten funtzioen eta norabidearen inguruan. Elkarte askok ibilbide luze-luzea dute egina (30, 20 urte...) eta, dirudienez, batzuk herdoiltzen hasiak dira. Iraultzeko beharra ikusi da eta Kongresuan onartu zen ponentzia "mugimendu" gisa aritzeko beharra ageri da, hala nola gizartean eragiteko premia. Guk eztabaida horiek interes handiarekin jarraitu ditugu baina hainbat elkarterengandik urrun samar ikusten dugu gure burua: gazteak eta txikiegiak gara. Oraindik ez gara pausatu herdoiltze sentsazioa izateraino eta ez dugu makineria astuna (langileak, aurrekontu erraldoiak...).

Bertze gai batzuek, ordea, interes handia zuten guretzat: elkarteek gizartean izan behar duten funtzioa, eragitearen beharra, hiztunon eskubideak, hizkuntza ekologia...

Hor segitzen dugu gogoeta egiten, nola banatu metatutako lanak, nola inguruan eragin, nola proiektatu elkarte. Prozesu honetan bidelagunak behar ditugu, ekarpen guztiak ongi etorriak izanen dira.

Jatetxea

V

lante

Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak

Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695

VALENTIN

CARPINTERIA de ALUMINIO

Mundua aluminioz
Itxiturak, ateak, leihoak, eguzki-oihalak...

Zure eguzki-oihala
10 eguneko epean

Ctra. de Logroño, 89 Ayegui · valentin@aluminiosvalentin.com · Tfno. 948 55 45 10

Eragin eta sortu, txanpon bereko bi aldeak

■ Koldo Castañeda

Orain aipatuko dudan afera ez da berria. Euskararen aldeko mugimenduan ibili garenok jakin, badakigu sortu eta eragin arteko dikotomia behin baino gehiagotan azaldu zaigula. Garean Euskaldunon Elkartearen biltzen garenok euskararen erabilpena gure herrian areagotzeko ze estrategia jarraitu beharko genukeen aztertzen ari gara.

Egindakoaz pozik gaude. Duela lau urte elkartearen sortu zenean, ilusioz beterik geunden eta aurrean genuen bi-deari ekin genion. Haurrei zein helduei begirako jarduerak antolatu ditugu, irratian asteroko saioa, web orria, matrikulazio kanpainak, Topagunean parte hartu... Egia esanda, batzuetan asmatu dugu eta beste batzuetan berriz, hankamotz gelditu gara. Hala ere, tarte honetan zerbait ikasi dugu, akatsek ere balio dutela gure jarduera eraginkorrago izan dadin.

“Egin eta eragin” prozesu honek gero eta jende gehiago eskatzen du, inplikazio gehiago eskatzen du eta denok ikusten dugu jarduerak antolatzen eta sortzen jarraitu behar dugula. Baina, ez da momentua beste eragile batzuek ere euskaraz egin dezaten? Eta hau gertatzeko Gareanek eragile hauetan eragin beharko luke?

Gareanek euskarazko ekimenak antolatu (euskalgintzako beste elkarteek edo erakundeek bezalaxe), baina herrian antolatzen diren gainontzeko ekimen gehienek erdaraz izaten jarraitzen dute. Agian, Elkartearen ohiko jardueraz gain, edo etorkizunean sortuko dituenaz gain, beste eragile batzuek ere zenbait jarduera euskaraz egin ditzakete.

Agian, adibide bat jarrita hobeto ulertuko dugu: demagun udan ludoteka publikoa antolatzen dela; normalean ume euskaldunak eta erdaldunak batera airtuko dira, nahiz eta kasurik hoberenean, begiraleak euskaldunak izan; ludoteka honen funtzionamendua erdara hutsez izanen da. Horren aurrean Gareanek euskarazko ludoteka sortzea beregain har dezake, begiraleak kontratuz, matrikulazio kanpaina eginez eta abar. Edo eragitearen bidea hartu. Hau da, ludotekaren arduradunekin hitz egin, ume euskaldunontzat euskarazko ludoteka antola dezaten, ume erdaldunek erdarazko ludoteka duten moduan.

Normalean, eragiteaz hitz egitean, denok, edo gehienok, Udaletxeaz, Gobernuaz edo Administrazioaz gogoratzen gara. Hemen planteatzen dena ez da hainbeste Administrazioan nola eragin, herrian txertaturik dauden eragileetan baizik. Helburu lorgarriak jarri behar dira eta eragiteko prozesua konbentzimenduaren bidetik eraman behar da. Bi hanka hauek ezinbestekoak dira lan eraginkorra egin nahi badugu. Ez dugu hormaren kontra buruz joko; hormaren zirrikituak bilatu eta bertatik lan egitea proposatzen da.

Hemen planteatzen diren ideiek eztabaida piztu nahi dute, elkartearen lana zorrozteko asmoz. Beraz, denon iritzia eta ekarpenak inportanteak iruditzen zaizkigunez, hemen azalduko astakeria edo ameskeria edo dena delakoa iruditzen bazaizu jakinarazi eta gus-tura solastuko gara.

Bodegas Lezaun
Asador-Jatetxea

Enoturismo
Bisita gidatuak
Ardo-dastaketak

Lakar (Deierri) NAFARROA
info@lezaun.com - www.lezaun.com
Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231



LIBURUDENDA
INO
PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2
Tel. eta fax: 948 550 383 - LIZARRA



Foto-inkesta

Udal hauteskundeak

Kotarro aldzkariaren zenbaki hau argitaratzearekin batera dira udal hauteskundeak. Bete-beteen eta aldi berean direnez gai honixe heldu nahi izan diogu, gaurkotasunaren seinale, gure fotoinkestarako:

1. Aurten Lizarran aurkezten den zerrenda kopuruaz: ba al dakizu zenbat diren, zer dela eta gertatu den eta zein ondorio izan ditzakeen?
2. Euskara eta euskaldunak: ba al dakizu hautagai euskaldunik dagoen, euskarari buruz zer dioten alderdiek, zer garrantzi duen gai honek kanpainen? zer deritsozu?



Koldo Viñuales

1. Hauteskunde hauetan bozka emateko aukera Lizarran oso zabala izango da. Baina botuen banaketa handi honekin alderdi batek gehiago absolutoa lortzeko zailtasunak izango ditu. Hala izanik Lizarra hiriarentzat alternatiba progresista osatu daiteke kontsentsu batera heltzen bagara.
2. Zoritxarrez Lizarraldean mitinetan eta etxez etxe banatuko den propagandan euskararen presentzia ez da handia izango, alderdi batzuentzat euskara ez baitago beraien lehentasunen artean. Hala ere BILDUK, LKBk eta NABAik osatutako kandidateuren euskaldun eta euskaltzale franko direnez, euskararen egoera hobetzeko estrategiak martxan jarri daitezke.



Roberto Aiukar

1. Bederatzi zerrenda guztira. Guk zinegotzi bat lortzea espero dugu. Eman daitekeen emaitzak oso udal anitza konposatuko du, ziur. Oso garrantzitsua izango da taldeen artean akordioak lortzea proiektuak aurrera egiteko. Gu ezkerreko taldeekin prest egongo ginatke akordioak lortzeko, baina beti gure programaren arabera. Oso garbiak eta zorrotzak gara zentzu horretan.
2. Bai, ezagutzen ditut hautagai euskaldun anitz (batzuk lagunak direlako), uste dut inoiz baino gehiago daudela. Horrek indarra eman behar digu hauteskundeetan eta gero elkarrekin lan egiteko gure hizkuntzaren alde. Gure aldetik oso garrantzi handia dauka euskarak; gure egitaraua elebiz dago, eta atal berezia dago euskararentzat, jakina. Euskara ez da bakarrik gure hizkuntza, baita ondarea ere, eta gure historioaren kontalaria eta lekukoa.



Bittori Martin

1. Bozka banaketan bai ondorioak egongo direla D'Hondt legeagatik. Batez ere eskuina lehen aldiz zatiturik, agian UPNk PSNrekin elkartzeagatik izan duen zigorra da? PPK ezberdin jokatzen du EAEn eta Espainian, eta Nafarroan Espainian bezala egin dute. Ezkerrak berriz, beti izan du zatitzeko tradizioa. Alde batetik zenbat eta anitzago hobe baina bestetik D'Hondt sistematik izorratzen du.
2. Kanpainen gehiago zaintzen da, txarteletan eta. Batzuek itxura egiten dute bozkek lortzeko baina hauteskundeon ondoren ahazten zaie. Programetan batez ere alderdi ezkerriak eta abertzaleetan agertzen da.



Larraitx Trinkado

- 1- Lizarran aurten 9 zerrenda aurkezten dira, aspaldian ez zegoen halako aukera zabala Lizarran. Ondorio bezala, alderdi handiek beherapena izango dutela uste dut, eta ez duela inork gehiago absolutorik lortuko, ezberdinen arteko akordioak behartuz.
- 2- Hautagai euskaldunak badaude, Nabai 2011, Bildu eta LKB-ren zerrendatan. Alderdi hauen kanpainen garrantzia ematen zaio euskarari, eta hizkuntzaren egoera hobetzeko proposamenak ere luzatzen dira. Aurkezten diren beste alderdiek ez diote garrantzi handirik ematen.

Estudio de Gramática, 2
31200 Lizarra- Nafarroa


Tel. 948 550 010



denborapasak



Gurutzegramak




Neska izenak (ama birjinak)

- Ezker eskuin**
- 3- Mutiloakoa
 - 5- Zumaia eta Deba artekoa
 - 7- Lizarrakoa
 - 8- Eibarko amabirjina

- Goitik-behera**
- 1- Athletic-en eskaintzak jasotzen dituen
 - 2- Arroizkoa
 - 4- Tolosakoa
 - 6- Idoiaren jatorrizko herria

Euskalglifoa

Non agertu zen Puy-ko ama birjina?



eta



Udalbide.NET
www.udalbide.net

ALBISTEAK ETA INFORMAZIOA GUZTIA ESKURA

Sartu zure udalberrira eta ikus ezazu zure UDALERRIaren informazio guztia eguneratuta.

Ezagutu ezazu Euskal Herria, EUSKAL HERRIA SAIKONEAN atalaren bitartez. Hor aurreratu dituzun Lurraldea, Biztanleria, Eonomia eta gizartea, Euskara eta hezkuntza, Udalerriak eta Euskal Diasporen inguruko gaurkotutako datu guztiak.

Eta harpidetu zaitez BULETIN ASTEHARI ELEKTRONIKOra. Astero jasoko dituzu azken-azkeneko berriak.

ZUREKIN

www.udalbide.net
www.udalbiltzakeu

Mirari
centro de estética y masajes

c/ urbieta, 1 / 31200 estella
t. 948 554 001

www.centromirari.com

Puy 2011 egitaraua

MAIATZAK 21. LARUNBATA

- 12.00. Kalejira Jurramendi txarangarekin.
 15.00. Foruen plaza, herri-bazkaria "III. Gazte Eguna".
 17.15. Irteera zezen plazarantz, txaranga batekin lagunduta.
 17.30. Zezen plaza, ikuskizun Valentziarra: motorra-jauziak, zabuak eta errekorreak.
 Jarraian bigantxak askatuko dira.
 19.45. Udaletxetik, dantzari-desfilearen irteera.
 20.00. Foruen plaza, "Larrain Dantzaren XI. Eguna".
 22.00. Entrañas aldapatik, zezensuzkoa.
 Jarraian, Zezen plazan, beste zezensuzko bat izanen da.
 23.00-03.00. Foruen plaza, disko-dantza.

MAIATZAK 22. IGANDEA

- 10.30. Udaletxetik. Erraldoi eta buruhandien konpartsen irteera.
 Kalejira kaleetan zehar.
 13.00. Foruen plazan. Txantreako eta Lizarrako erraldoi eta buruhandien konpartsen emanaldia.
 17.00. Sorkunde Garbiaren pas. Benito Ros-en erakustaldia.
 20.00-21.00. Foruen plaza, gaita-musika "Gaiteros de Estella-Hermanos Montero" gaiteroek eskainita.

MAIATZAK 24. ASTEARTEA

- 20.00-22.00. Kalejira "Alkaburua" txarangarekin.
 21.00-22.00. Foruen plaza, gaita-musika "Ruiz-Echeverria" gaiteroek eskainita.
 22.00. Foruen plaza, zezensuzkoa.

MAIATZAK 25. ASTEAZKENA

- 08.00. Dianak gaitero eta txistulariekin.
 08.30. Dianak Estella-Lizarrako Musika Bandak eskainita.
 10.30. Irteera Udaletxetik, Lizarrako Udal-korporazioa, Segizio Ofizialarekin lagunduta.
 11.00. Puyko Amabirjinaren Basilikan Meza Saindua gure Zaindari Goitiaren ohoretan.
 14.30. Santiago plaza. Herri Bazkaria "III. Txerrikume-gorespen Eguna".
 17.00. Santiago plaza. Musikaldia "Enemigos Íntimos" taldearekin.
 17.00. Koroatze plazan. Ekitaldia haurrentzat "Tobogan" taldearekin.
 18.00-21.30. Foruen plaza, Musikari Berrien Jaialdia:
 - La Rúa 44 (rock-folk).
 - Paralelos (pop-rock akustikoa).
 - Barracus (pop-rock).

Errezutik Bidarraira Iruñean barna

■ Luisfer Etxeberria

Jorge de Riezu izeneko fraide kaputxi-noak idatzi zuen 1973an *Nafarroako Euskal Kantu Zaharrak* liburua. Liburu horretan topa daiteke *Iruñeko ferietan* kantua, Erramun Martikorenak hain ederki kantatzen duena bere *Primaderrari* diskoan.

Kantuko protagonista Sanferminetan Iruñeko ferietara joaten da eta tratuan hasten da andaluz batekin zaldi bat erosteko. Diru pixka bat eskaini ordu andaluzak hitza hartzen dio eta zaldia pozik saldu, zaldi maingua, begi okerra, ferratu gabea eta gaixoa. Kontakizuna Iruñeko ferietan hasten da baina gero, protagonista etxerako bidean jartzen denean, Belategiko bentak eta Urdazubiko erreka ere aipatzen dira. Kantua osatzen duten hamabost koplak arruntan barregarriak dira eta umorez gainezka egiten dute.

Kantu honen egilea, Jorge Errezukoaren liburuan aipatzen den bezala, Otxalde bertsolaria du. Joanes Otxalde, Bidarrain sortu zen 1814an eta bertan zendu zen 1897an. Ospe handia lortu zuen bertsolari gisa Ipar Euskal Herrian.

Abestia, *Iruñeko ferietan*, Gareanek presatatu duen Lizarran Kantuz 2 kantutegi berrian aurki dezakezue. Gustura kanta ezazuela!

kotarro

16. zenbakia

Julio Ruiz de Alda, 6 behea, ezk.
 31200 Lizarra - Nafarroa
 Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkartek



Diseinua eta maketazioa:
 Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
 Ale kopurua: 800

UDALBIDE
 ELKARLAN • ELKARTEA

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluen edukinaren ardurarik Garean Euskaldunon Elkartek ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean,